

GOTZAIN KONTSEILUA
BIKARITZA ETA KONTSEILUEN EKARPENAK VI. EEEaren ZIRRIBORROARI BURUZ

2020/05/14

Gotzain Kontseiluak VI. EEEaren lehenengo zirriborroari buruz Bikaritzetatik, Abade Kontseilutik (AK) eta Eleizbarrutiko Pastoral Kontseilutik (EPK) jasotako ekarpenak batu ditu eta, orain, azteraldiaren emaitzak partaideei itzultzen deusez.

Kontseilarien artean eta bikaritzetan eretxi bakoitzak izan dauan babesaren islatu nahi zana da, kasuan kasu, sistematizazio-agiri honetan. Alderdi honetan, eta babes horreek hobeto baloratzeko, erakunde bietako kontseilariak batera hartu dira kontuan (hau da, 4K esaten danean, kontseilu bateko eta besteko 4 kontseilari dira). Osagarri erara, eta laburpen honi laguntzeko, AKan eta EPKan emondako erantzunen txosten zehatzak (hemen bai, kontseiluak bereizita) eta lurraldeetako bikarioek dagokien lurraldean esandakoaz egindako laburpenak aurkezten doguz.

Jasotako ekarpenen deskribapena ondorengo ataletan egituratzen da ikuspegi eta erronkei dagokienez:

- Formulazino-proposamenari buruzko balorazio orokorra: erantzunen emaitzaren datuak.
- Idazketari begira hobekuntzak egiteko ekarpenen laburpena, parentesi artean jatorria adieraziz: dagokion bikaritzaren edo kontseiluen txostena (ekarpena zenbat kontseilarik egiten dauan zehaztuz).

Gainera, erronken kasuan, jardunbideei dagokiena gehitzen da:

- Jardunbideei begira hobekuntzak egiteko ekarpenen laburpena, parentesi artean jatorria adieraziz: dagokion bikaritzaren edo kontseiluen txostena (ekarpena zenbat kontseilarik egiten dauan zehaztuz).

Hasteko, errepikatzen diran ekarpen mota bi nabarmenduko doguz:

1. Covid-19ak eragindako krisia dala-eta, VI. EEEaren prestaketarako prozesua etetea komeni dala nabarmentzen dabenak, gertaera horrek egitasmoaren beraren edukian be eragina izan daike-eta (3V: I-II, IV-V; VI eta 4C). Gai honen inguruko ebazpena AKan eta EPKan kontsulta egin ondoren hartu da, Gotzain Kontseiluak prozesua eten eta 2021ean, testuinguru egokiagoan, berrekitea erabagi daualarik (2020.eko maiatzaren 12ko batzar-agiria).
2. Egitasmoaren formatuan arreta jarri dabenak (3V: I-II, IV-V eta 5C): ikuspuntuan eta eskaintzen dauan barritasunean argitasun gehiago eskatuz; jardunbideen murrizteko aukera aztertzeke eskatuz, gero lurraldeetan nor bere egiteko eta garatzeko irakurketa errazago egiteko; hizkuntza zuzenagoa, zehatzagoa, gertukoagoa, bakunagoa gomendatuz, alderdi barneratzailea ahaztu barik.

0. Ikuspuntua

1. zirriborroa formulatu

Esker onez jasoten dogu Eleizbarruti bizi eta abegitsu, Jainkoaren esperientzian oinarritutako, kreazino osoa barritzen dauan Espirituak suspertutako, Jesus Jaunarengan ikasle eta Barri Onaren poztasunaren lekuko izateko mandatua jaso dauan Eleizbarruti izateko deia.

0.1 Proposamenaren balorazino orokorra

Lanaren oinarri dan ikuspuntuaren proposamenaren balorazino positiboa. Dana dala, azteraldiko erantzunetan, kontseilari gehienek (33/53) proposamena hobetu egin behar dala uste dabe. Erantzun daben ekipo ministerialak promosamenarekin adostasun gehiago erakusten badabe be (23/38), kasu honetan be esanguratsua da, honeen artean, hobekuntza beharrezkotzat jotzen dabenak (2/5 I. bikaritzan; 7/9 III-VII bikaritzetan eta 5/10 IV-V bikaritzetan).

BIKARITZAK	I	II	III-VII	IV-V	VI	GUZTIRA
Proposamen egokia						
Zuzena gauzak gehituz						
Proposamen desegokia						

KONTSEILUAK (52)	
Proposamen egokia	
Zuzena gauzak gehituz	
Proposamen desegokia	

0.2 Ikuspuntuaren idazketari begira hobetzeko ekarpenen laburpena

Hobekuntzari dagokionez, argi ikusten da **alkarte biziak** esamoldea sartu behar dogula eleizbarrutiko alkartearen dalakoaren ordez. Arrazoi honeek emoten dabez: fedea bizi dan eremua dalako eta jente gehienak berari be badagokiola sentitzen daualako; hortxe dagoalako jokoan geure izaera, geroko belaunaldiek fedea esperimintatzeko aukera izatea; aniztasunaren eremua dalako; elizbarruti-sena gertuko esperientzia lez bizi dalako. Proposamen honen alde agertzen dira kontseilarien 35 ekarpenen 22 (22C) eta III-VII eta IV-Vi bikaritzetakoak.

Alkarte bizi honeen misinoaren bereizgarri diran osagaiak ikuspuntuan sartu behar dirala azpimarratzen dau beste hobekuntza batek. Horreen artean, batez be aitatzten dira, behartsuak (IV-V, 2C), harrera (1C), pertsonari entzutea, gizarteari entzutea (1C), sekularizazioa (IIko moderatzaile 1, 1C), errealidadearen eraldaketa (IV-Veko moderatzaile 1), itxaropenaren eta poztasunaren lekuko (III-VII, 1C), urrundutako pertsonak (Ieko moderatzaile 1), harrera migratutako aniztasunari (1C), alkarte barneratzailea (IV-Veko moderatzailea, 2C).

Idazketari buruzko ekarpen zehatzak:

- Ikuspuntuak zehatzagoa izan behar dau. Eleizbarrutiak, egitasmoa burutzean, zertara iritsi gura dauan azaldu. Funtsezko osagaiak: alkarte bizi, Ebanjelioaren poztasunaren lekuko izan, lekukotasunaren indarra.
- Pertsonari bere zaurietan, makaltasunetan eta ahalmenean entzutea lehenesten dauan Eleiza. Pobretasun eta bidegabekeriatik gertu eta horrekin hartu-emonean, ikasi eta bereizi egiten dauan Eleiza.
- Alkarte bizi, Jesusen oroimen eta jarraipenean sustraitutako alkarte, Ebanjelioaren poztasunaren lekuko, gaur eta hemen, Espirituaren ekologian zaintzen, iragarten eta harrera egiten dauan alkarte izateko deia geure egiten dogu.
- ... abegitsua, Jainkoaren esperientzian oinarritutako alkarteen alkarte, bizia, ospakizuna eta Jesusen barri onaren poztasun eraldatzailearen lekuko izateko misinoa konpartitzen dituan alkarte.
- Lerro bi zuzendu: “Bat egitean eta Jainkoaren esperientzian oinarrituta”. (2)“Espirituak bizituz, bere gurtza iraunkorrean, kreazino oro barritzen dauana”.
- Jesukristoren nagusitasunaren garrantzia alkarteetan eta bizitza pertsonalean. Otoitzaldiak. Santutasunerako deia danontzat.
- Espirituak bizitutako alkarteen alkartasuna, leialtasun sortzailean bizi, Jessuen Jainkoa eta bere barri ona entzun, familia abetsuak, ikasle misiolari lez bizi, ebanjelioaren poztasunaren lekuko –bestelako mundua egiteko konpromisoa.

1. 1. ERRONKA

1. zirriborroa formulatu

Dei egin guztiei, bakotzak bat egin daian kristau bizitzaren iturri dan Jesukristogaz, Berau izan daiten gure poztasunaren arrazoi eta gure misinoaren oinarri

1.1 Proposamenaren balorazino orokorra

BIKARITZAK	I	II	III-VII	IV-V	VI	GUZTIRA
Proposamen egokia						
Zuzena gauzak gehituz						
Proposamen desegokia						

KONTSEILUAK (52)	
Proposamen egokia	
Zuzena gauzak gehituz	
Proposamen desegokia	

1.2 Erronkaren idazketari begira hobetzeko ekarpenen laburpena

Idazketarako aldaketa esanguratsuenak:

- Jesukristorekin bat egitearen eleiz alderdia kontsultarako idazkian agertzen bada be, azpimarra garrantzitsua antzematen da: bat egite hori aldaketen eta alkarte jarduera barrien eragile da, alkartean ospatu behar da, Jainkoaren herriko kide sentitzea eskatzen deusku, eta anai-arreben alkartean, mundura begira dagoan alkartean bizitzeko dei egiten deusku, urteteko prest, hil ala bizikoa da alkarte bizi eta abegitsuak izatea (I, III-VII, 13C).
- Eukaristiaren garrantzia nabarmendu. (VI, 2C).
- Eleizan erabilten diran hizkuntzak gaurkotu, formari eta estiloei dagokienez (III-VII; IV-V); hizkuntza barneratzailegoa erabilteko eskaera (III-VII, 2C).
- Jesukristorekin bat egitea Jainkoarekin bat egiteari edo Jainkoaren esperientziari estu lotuta ulertzen da; ez da banantzea komeni. (III-VII, 2C).

Lehenetsi beharrekoak:

Jesukristorekin bat egitea posible dan askotariko esperientzia eta eremuetan hobeto islatu beharko litzateken azpimarra dago: ... (r)i egiten deutsezuenean, neuri egiten deustazue; behartsuak, Jesusekin bat egiteko bide lez (6C, IV-V), beste sinismen batzuetako kristauekin bat egin, ekumenismoaren aberastasunera zabaltzeko (II), isiltasuna (2C), gurtza (2C, langile pastoraltza (I), Jaunaren Eguneko ospakizunak (1C), otoiztegiak (1C), esperientzia misiolaria (1C).

Bat egite hori ahalbideratuko daben bide zehatzen inguruan jakin-mina antzematen da: eukaristia, bakarkako eta alkarteko otoitza, bizitzarako egitasmu pertsonala, eguneroko azterketa, akonpainamendua, errealidadearen irakurketa sinisteduna, ekintzaren pedagogia fede prozesuetan, erreferentzia taldeak, pertsonen bizitzako une eta egoeretara egokitzea, gizarte-kultura baldintzen azterketa, aparteko arreta jarriz inguru euskaldunean, entzutearen garrantzia, gure alkartean harrera eta zerbitzuaren inguruko lekukotasuna (Bikaritza guztiak, 12C).

Jainkoarekin bat egitean, Hitzak dauan lehentasuna nabarmentzen da: heziketa prozesu erakargarri eta mailakakoak Hitzaren irakurketa aberatserako (II, III-VII, IV-V, 2C), Lectio edo antzeko eskaintzak (I), Idazteunera "buelatu" (1C).

2. 2. ERRONKA

1. zirriborroa formulatu

Fededunek eta kristau alkarteeek sufritzen dagozan gizon eta emakumeen alde eta danona dan etxearen zainketa arduratsuaren alde daben konpromisoaren lekukotasun pozgarria emon.

2.1 Proposamenaren balorazino orokorra

BIKARITZAK	I	II	III-VII	IV-V	VI	GUZTIRA
Proposamen egokia						
Zuzena gauzak gehituz						
Proposamen desegokia						

KONTSEILUAK (52)	
Proposamen egokia	
Zuzena gauzak gehituz	
Proposamen desegokia	

2.2 Erronkaren idazketari begira hobetzeko ekarpenen laburpena

Idazketarako aldaketa esanguratsuenak:

- “Bakarka eta alkartean lekukotasuna emon” gehitu idazketan (IV-V, VI eta 7C).
- Osasun, gizarte eta ekonomia krisiaren ondorioak kontuan hartu (IV-V, 4C).
- Bibliako txatala osatu, “lekuko bizon-emakume guztien aurrean” gehituz (III-VII, 2C).
- Arrazoiketari buruz (2C), lehenengo esaldiaren formulazinoa hobetu erronkak proposatzen dituan aldaketa “sakonak” kontuan hartuta.
- Ebanjelizazinarako funtsezkoa dan egintza bidezko lekukotasuna, konpromisoa, gehitu: sufritzen dagozanekin, gizartearekin, egituren eraldaketarekin, danona dan etxearen zainketarekin, misiolari-sena eta etorkinak nabarmenduz (IV-V, VI, 5C).

2.3 Jardunbideen idazketari begira hobetzeko ekarpenen laburpena

Erantzun gehienetan aitatzen diran lehentasunezko lerroak, batez be bi:

- Kristau alkartea eta Caritas bata bestearen kide dirala eta euren hartu-emona horretan oinarritzen dala nabarmendu eta loturak estutu, pastoral guztien gizarte-karidade alderdia, Eleizako gizarte erakundeen arteko koordinazinoa (I, III-VII, IV-V, 12C).
- Pobretasun barriak antzeman (III-VII, IV-V, VI, 12C). Kasuren batean 1. eta 2. lerroak bateratzea proposatzen da. Egoerak (bakardadea, gaixotasuna, dolua,...) eta gizataldeak (etorkinak, errefuxiatuak, presoak, nagusiak,...) aitatzen dira.

Beste apustu esanguratsu batzuk:

- Komunikabide barriak (III-VII, IV-V, VI, 5C); kasu batzuetan, bizitzako istorioen eta lekukotasunen garrantzia azpimarratzen da.
- Ikuspuntu orokorra, konpromisoaren alderri estrukturala (II, IV-V, 6C). Zuzentasun eta eskubideen alde jardun beharra, pobretasuna eta ingurumenaren hondatzea dakarren arrazoiei helduz.

- Bihurtze ekologikoaren ikuspuntutik jarrera eta ekintzak sortu (I, IV-V, 9C): egitasmo (alkartekoak eta bakarkakoak) eta ekintza zehatzak sustatu bihurtze horretarako, kontsumo arduratsurako ekimenak, bidezko merkataritza, ekonomia solidarioa, irizpide etikoekin inbertitu.
- Lana sarean eta beste gizarte eragile batzuekin (eerakundeak, gizarte mobimentuak,...) alkarlanean (IV-V, 7C).

3. 3. ERRONKA

1. zirriborroa formulatu

Barri Ona iragarteko bide barriak bultzatu pertsoneri lagun eginez.

3.1 Proposamenaren balorazio orokorra

BIKARITZAK	I	II	III-VII	IV-V	VI	GUZTIRA
Proposamen egokia						
Zuzena gauzak gehituz						
Proposamen desegokia						

KONTSEILUAK (52)	
Proposamen egokia	
Zuzena gauzak gehituz	
Proposamen desegokia	

3.2 Erronkaren idazketari begira hobetzeko ekarpenen laburpena

Idazketarako aldaketa esanguratsuenak:

- Ikastetxeetan eta txertatuta dagozan pastoral barrutietan aarean lan egitea bultzatu izana apimarratu (II, III-VII eta IV-V, 6C).
- Ikastetxeak iragarpenerako plataforma lez izendatzen dituan erronka formulazinetik kendu, aitatzen ez dan beste asko be badalako (III-VII, IV-V, VI, 3C).

3.3 Jardunbideen idazketari begira hobetzeko ekarpenen laburpena

Lehenetsi beharreko lerroak:

Sarean lan egin: (I, III-VII, IV-V, 23C).

Kristau sarbideko prozesuak zaindu. Kristau Sarbidearen Direktorioa gauzatzen eta garatzen jarraitu. (I, III-VII, IV-V, 10C).

- Aldaketa kultural eta teknologikoak fedea adierazteko eta helarazteko eta komunikatzeko bide barriak pentsatzera eroan behar gaitu, gure ondarea sustatuz eta kulturarekin hartu-emonean (III-VII, VI, 5C).
- Familia katekesia bultzatu, oraindik garatu barik dago-eta hainbat Pastoral Barrutitan (III-VII, IV-V, 4C).
- Jainkoaren esperientzia ahalbideratuko daben proposamen barriak, osoko ibilbideak, azkenekin bat egitearen esperientziak, metodologia barriak, agerpena sareetan, ... (I, II, III-VII, VI, 5C).
- Oinarrizkotik abiatu, Jesusekin bat egitetik, geure aldeko maitasunagaitik gertatu ziran eta bere bizia emoteko bide diran bere heriotza eta berbizkundearen kerigma, abiapuntutzat hartu. "Ebanjelioa, betiere, bizi guztiaren oinarria da" (LG 20) (1C),

4. 4. ERRONKA

1. zirriborroa formulatu

Ardurakidetasuna sustatu, jasotako doeez jabetuz, Eleizaren misinoagaz bat eginez, eta laiketza eta emakumearen partaidetza sustatuz.

4.1 Proposamenaren balorazino orokorra

BIKARITZAK	I	II	III-VII	IV-V	VI	GUZTIRA
Proposamen egokia						
Zuzena gauzak gehituz						
Proposamen desegokia						

KONTSEILUAK (52)	
Proposamen egokia	
Zuzena gauzak gehituz	
Proposamen desegokia	

4.2 Erronkaren idazketari begira hobetzeko ekarpenen laburpena

Idazketarako aldaketa esanguratsuenak:

- Hamabost ekarpenen arabera, emakumearen partaidetza eta ardurakidetasuna handitu egin behar dala dinoan apustua hobeto zehaztu behar da.
- Bost ekarpenen arabera, ardurakidetasunaren sustapena jasotako doeen aniztasunetik aurkeztu behar da (5C).

4.3 Jardunbideen idazketari begira hobetzeko ekarpenen laburpena

Lehenetsi beharreko lerroak:

- Ardurakidetasunari buruzko egitasmoa garatu eleiz bizitzako alderdi guztietan (III-VII, IV-VI, VI, 12C).
- Laikotza prestatu eta ardurakidea. Heziketarako eremuak antolatu, laikotza EEE barrian aurkeztutako erronketei aurre egiteko prestatzeko. Laikoen etenbako heziketa bultzatzen jarraitu ((IV-V, VI, 5C).
- Bateo-bokazinoaren arabera, laikoek, ministro ordenatuen bokazinetik desbardina dan euren berariazko laiko bokazinoarekin bat, Eleizaren pastoralgintzan garatu daikiezan askotariko ministerioak sustatu (ik. Christifideles laici, 23) (II, III-VII).
- Emakumeen ardurakidetasuna sustatu Eleizaren bizitzan eta misinoan, eleiz legeriak jasotako zabaltasun betean (I, II, IV-V, VI, 7C).
- Misinoan laikotzaren ardurakidetasuna ahalbideratuko dauan antolaketa-egitura hobetu (VI, 7C).
- Ardurakidetasun ekonomikoa finkatu eleizbarrutiko egitasmo estrategiko ekonomikoa bultzatuz (III-VII, VI, 1C).
- Bokazino pastoraltza indartsua garatu biziario guztietarako Eleizan (II).
- Eleiza ahiztekin alkarlanean jardunez Ebanjelioaren iragarpena sendotuko dauan misiolari bizitza (1C).